



EBAZPENA, 2010eko ekainaren 9koa, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko otsailaren 25eko Aginduaren bitartez 2008-2009 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko haur-eskoletan eskolaratutako hiru urtetik beherako haurrak dituzten familien babeserako laguntzak emateko deialdia ebatzen duen Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko Ebazpena aldatzen duena.

2009ko otsailaren 25eko Aginduaren bitartez 2008-2009 ikasturterako egindako laguntza-deialdia kudeatzen duen teknikariak emandako 2010eko maiatzaren 6ko txostena, txosten horrekin zerikusia duten espedienteak eta Agindu horren 18. artikulua aurreikusitako Balioespen Batzordeak 2010eko maiatzaren 7an egindako proposamena aztertu ditugu.

GERTAKARIAK

Lehena.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren otsailaren 25eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko haur-eskoletan eskolaratuta dauden hiru urtetik beherako haurrak dituzten familien babeserako laguntzak ematea arautu zen, eta laguntza horietarako deialdia egin zen.

Bigarrena.- Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bitartez, deialdi hori ebatzi zen.

Hirugarrena.- Deialdia kudeatzen duen teknikariak emandako 2010eko maiatzaren 6ko txostenak aditzera eman ditu jarraian azaltzen diren hutsegiteak, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko Ebazpenean aurkitu direnak.

Zehazkiago, hutsegitea egin zen Gasteizko Udalaren haur-eskoletan eskolaratutako haurrei dagozkien laguntza-eskabideei dagokienez, eskatzaileak, xede berberarekin, Gasteizko Udalaren beste laguntza bat zuen kasuetan, baldin eta laguntza horren zenbatekoa Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuetako sailburuaren otsailaren 25eko Aginduaren bitartez jaso lezaketen gehieneko zenbatekoaren berdina edo handiagoa bazen.

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak eskatutako hainbat laguntza ukatu egin zituen, baldin eta Gasteizko Udalaren eskutik jasotako laguntzaren zenbatekoak gainditzen bazuen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren otsailaren 25eko Agindua betez eman zitekeen gehieneko zenbatekoa, eta, beste zenbaitetan, esleitutako laguntzaren zenbatekoa murriztu egin zuen, Agindua aplikatuz eman beharreko zenbatekotik Gasteizko Udalaren eskutik jasotako laguntzaren zenbatekoa kenduz.

Laugarrena.- 2010eko maiatzaren 7an, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren otsailaren 25eko Aginduaren 18. artikuluan aurreikusitako Balioespen Batzordea bildu zen, eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendariari Ebazpen-proposamena helarazi zion, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko otsailaren 25eko Aginduaren bitartez 2008-2009 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko haur-eskoletan eskolaratutako hiru urtetik beherako haurrak dituzten familien babeserako laguntzak emateko egindako deialdia ebatzen duen Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko Ebazpena aldatzen duena.

Gertakari horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK



Lehena.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko otsailaren 25eko Aginduaren 16.3 artikulua honako hau ezartzen du: *"laguntzaren zenbatekoak ezin izango du ezein kasutan gaingitu diru-laguntza jasoko duen eskolatzealdian familia-unitateak haur bakoitzeko jasaten duen kostu zuzena, ez bakarka hartuta, eta ezta beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak emandako diru-laguntza edo laguntzekin batera ere"*. Hortik zera ondorioztatzen da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko otsailaren 25eko Agindua araututako laguntzak bateragarriak direla Gasteizko Udalak xede berberarekin eman dituen laguntzekin, Nolanahi ere, esan beharra dago Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako laguntzen zenbatekoak ezein kasutan ezin duela gaingitu, Gasteizko Udalaren laguntzen zenbatekoarekin batera, familia-unitateak laguntzaren xedean egindako gastua.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko haur-eskoletan eskolaratutako hiru urtetik beherako haurrak dituzten familien babeserako laguntzak ematea arautzen eta laguntza horietarako deialdia egiten duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko otsailaren 25eko Aginduaren 12. artikulua laguntzak jaso ahal izateko betekizun ekonomikoak eta familia-errentaren tarteak finkatzen ditu. Agindu horren 16. artikulua, berriz, 12. artikuluan ezarritako familia-errentaren tartearen arabera esleitu beharreko laguntzen zenbatekoa zehazten du.

Hirugarrena.- Administrazio-espeditatearen azterketatik zera ondorioztatzen da, Administrazioaren jardunak antolamendu juridikoa urratu duela, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko otsailaren 25eko Aginduaren irizpideak aplikatuz eman beharko ziratekeen laguntzak ukatu zirelako, edo irizpide horiek aplikatuta esleitu beharreko zenbatekoaren azpiko laguntzak eman zirelako.

Laugarrena.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 105.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, *"Herri-administrazioek edozein unetan erreboka ditzakete kargak ezartzen dituzten edo inoren kalterako diren beren egintzak, beti ere, errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten jaregite edo salbuespena, edo berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa ez bada"*.

Bosgarrena.- Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko Ebazpena zuzenbideko hirugarren oinarrian jasotako arau-haustea kaltetutako interesdunen kalterako egintza denez, administrazioak egintza erreboka dezake, interes publikoa kaltetzen duela adierazi beharrik gabè eta ondoren epaitegietan horren aurka egin beharrik gabe.

Errebokazio hori ez da legeek baimendu gabeko dispensa edo salbuespena, eta ez da, halaber, berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo antolamendu juridikoaren aurkakoa.

Errebokazio horrek ez ditu gaingitzen, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 106. artikulua berrikusiaren mugak. Honela dio artikulua horrek: *"Berrikusteko ahalmenaz baliatzerik ez dago, akzioen preskripzioa, epeen amaiera edota bestelako gorabehera direla eta, berrikusketa hori ekitatearen, fede onaren, herritarren eskubideen edo legeen aurkakoa bada."*

Seigarrena.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko otsailaren 25eko Aginduaren 19. artikulua ezarritakoari jarraiki, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria da Ebazpen hau emateko eskuduna.

Azaldutako oinarriak, aipatutako xedapenak eta horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak aztertuta, honako hau

EBATZI DUT:



Lehena.- 2008-2009 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko haur-eskoletan eskolaratutako hiru urtetik beherako haurrak dituzten familien babeserako laguntzak emateko deialdia ebazten duen Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko Ebazpena aldatzea, i. eranskinean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.- Ebazpen hau www.juslan.ejgv.euskadi.net web-orrian argitaratzea (laguntza eta diru-laguntzen atala/gizarte-zerbitzuak) eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan ere erakusgai jartzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote interesdunek Gizarte Gaietako sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 9a.

Gizarte Zerbitzuetako
zuzendaria,

ALFONSO GURPEGUI RUIZ.



I. ERANSKINA

* Zenbatekoak eurotan adierazi dira.

Espedientea	Eskatzailea	Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bitartez emandako laguntzaren zenbatekoa	Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa	Egin beharreko ordainketaren zenbatekoa
GUA-200800/9596	LAKOUAS, SIHAM	0,00	441,22	441,22
GUA-200800/8602	OLIVENZA HOLGADO, MONTAÑA	0,00	540,48	540,48
GUA-200800/8610	BURUAGA CELAYA, ELENA	0,00	371,31	371,31
GUA-200800/8641	DEL CASTILLO MATELLANES, BELEN	0,00	720	720,00
GUA-200800/8673	GARCIA ALONSO, JOAQUIN BERNARDO	0,00	720	720,00
GUA-200800/8703	RUIZ AGUIRRE, FERNANDO	0,00	573,88	573,88
GUA-200800/8728	SANZ LAGUARDIA, NURIA	0,00	350,94	350,94
GUA-200800/8746	REVILLA ALVARO, ALBERTO	0,00	165,58	165,58
GUA-200800/8776	ARMENTIA LAHOYA, Mª ISABEL	0,00	1186,67	1.186,67
GUA-200800/8800	BOUAMAN, ABDELMAJID	0,00	225,52	225,52
GUA-200800/8802	MARTINEZ ADAMEZ, MAGALI	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/8820	MATA OLMOS, MARIA DEL ROSARIO	0,00	250,73	250,73
GUA-200800/8821	MARTINEZ DIAGO, ROBERTO	0,00	718,75	718,75
GUA-200800/8823	ELGUEA ALVAREZ, IZASKUN	0,00	380,33	380,33
GUA-200800/8824	MOLINERO DE CARLOS, ANA IDOYA	0,00	709,96	709,96
GUA-200800/8825	MOLINERO DE CARLOS, ANA IDOYA	0,00	709,96	709,96
GUA-200800/8826	ORTEGA LAZARO, FIDEL	0,00	1080	1.080,00
GUA-200800/8847	RODRIGUEZ HOLGUIN, JAZMIN IVANOVA	0,00	1253,71	1.253,71
GUA-200800/8848	SANZ DE GALDEANO PYON, ESTIBALIZ	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/8862	GARCIA PEREZ, ANA	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/8872	CARBAJO DE LA IGLESIA, DIANA	0,00	285,25	285,25
GUA-200800/8883	ATIENZA SILVA, ISMAEL	0,00	350,94	350,94
GUA-200800/8897	LOPEZ DE LAPUENTE GARCIA DE CORTAZAR, MAITE	0,00	817,08	817,08
GUA-200800/8903	BARCENILLA MENA, MIREN EDURNE	0,00	573,88	573,88
GUA-200800/8909	PEÑAS DIAZ DE OTALORA, ENRIQUE	0,00	573,88	573,88
GUA-200800/8915	REDONDO CAÑAS, ALBERTO	0,00	677,24	677,24
GUA-200800/8917	KABORE, PIPOKO BERNADETTE	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/8918	MATA BARROSO, TATIANA	0,00	408,10	408,10
GUA-200800/8925	TASENDE ELIAS, VERÓNICA	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/8932	CASTILLO MOLINS, ANTONIA	0,00	350,94	350,94
GUA-200800/8951	FERNANDEZ DE ROMARATEGUI BARCENA, NEREA	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/8955	ABDELDJELIL, LAHOURIA	0,00	155,61	155,61
GUA-200800/8958	OLTICA MARIS, MONICA	0,00	441,22	441,22
GUA-200800/8976	DEL RIO CORDOBA, MAIKA	0,00	169,59	169,59
GUA-200800/8977	DEL RIO CORDOBA, MAIKA	0,00	169,59	169,59
GUA-200800/8979	SAMOILA, PETRONELA	1113,86	1440	326,14
GUA-200800/8985	ZEBALLOS DE CARDOZO, FAUSTINA	0,00	371,31	371,31
GUA-200800/8986	AGUADO RODRIGUEZ, Mª DEL CARMEN	0,00	129,36	129,36



GUA-200800/8987	CUELLAR TOVAR, JURLIE ANDREA	0,00	854.19	854,19
GUA-200800/9008	PONCE PINAGORTE, JOSE DARIO	0,00	720	720,00
GUA-200800/9009	CALVENTE MUNÑOZ, FLORENTINA	0,00	679.43	679,43
GUA-200800/9015	DUARTE RAMOS, HERMELINDA	0,00	441.22	441,22
GUA-200800/9026	LOPEZ SOLA, CARMEN BELEN	0,00	380.33	380,33
GUA-200800/9038	TORRE LLANOS, IZASKUN	0,00	431.41	431,41
GUA-200800/9039	TORRE LLANOS, IZASKUN	0,00	431.41	431,41
GUA-200800/9041	GARCIA DE CORTAZAR PEREZ DE ALBENIZ, JOSE IGNACIO	0,00	1.080,00	1.080,00
GUA-200800/9042	GARCIA-SERRANO ARRUTI, MARTA	0,00	718.75	718,75
GUA-200800/9045	SANCHEZ CHINCHURRETA, ROSA	0,00	350.94	350,94
GUA-200800/9054	LODOSO RUIZ, MªBEGOÑA	55.83	61.74	5,91
GUA-200800/9055	LODOSO RUIZ, MªBEGOÑA	55.83	61.74	5,91
GUA-200800/9077	LITUMA TORRES, PATRICIA	0,00	350.94	350,94
GUA-200800/9079	ZARATE OLEAGA, ISMAEL	0,00	720	720,00
GUA-200800/9089	BATANETE GINEL, OSCAR	0,00	345,06	345,06
GUA-200800/9097	LARREA OCHOA DE ASPURU, ANA	0,00	250,73	250,73
GUA-200800/9111	COBO LOPEZ, OLIVA	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/9119	CRESPO MARTINEZ DE GUEREÑU, EDUARDO	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/9149	DE LA MAÑUECO, IDOIA	0,00	135,24	135,24
GUA-200800/9156	MONTOYA ALONSO, Mª ELENA	0,00	350,94	350,94
GUA-200800/9159	ORTIZ DE ZARATE, IRIARTE	0,00	720	720,00
GUA-200800/9169	ZABALLOS MARTIN, IDOYA	0,00	350,94	350,94
GUA-200800/9180	JAUSON PEREZ, ASCENSION	0,00	573,88	573,88
GUA-200800/9184	OTEGUI ARAMBURU, MARIA ICIAR	0,00	720	720,00
GUA-200800/9195	NANCLARES MEDRANO, Mª BEGOÑA	0,00	854,19	854,19
GUA-200800/9197	PORTES DISPRES, LLERY	0,00	854.19	854,19
GUA-200800/9204	HERNANDEZ GARCIA, JUAN CARLOS	0,00	101.43	101,43
GUA-200800/9212	MAGAÑA GARCIA, ANGEL	0,00	380.33	380,33
GUA-200800/9221	BUENO CASANOVA, LIDA JANETH	0,00	431.41	431,41
GUA-200800/9242	GOMEZ ZORRILLA, RAUL	0,00	135.24	135,24
GUA-200800/9245	IBAÑEZ DE GARAYO LOPEZ, MARINA	0,00	573.87	573,87
GUA-200800/9253	LOPEZ DE MUNIAIN BERGANZO, ARANATZE	0,00	1080	1080,00
GUA-200800/9264	DE LA HUERTA ROJO, MARIA SOLEDAD	0,00	720	720,00
GUA-200800/9275	VIÑAS ALVAREZ, JOSÉ	0,00	135.24	135,24
GUA-200800/9276	OULKHIR ZALAGUI, RABIA	0,00	225.51	225,51
GUA-200800/9282	BARRERO PEREIRA, ROCIO	0,00	350.94	350,94
GUA-200800/9284	RAMOS YLLESCAS, AMERICA VIOLETA	0,00	720	720,00
GUA-200800/9288	DOMINGUEZ FERNANDEZ, ROBERTO	0,00	350.94	350,94
GUA-200800/9289	ESCANDON VALLEJO, JHON JAMES	0,00	155.61	155,61
GUA-200800/9292	DEL CAMPO ALVIZ, AZUCENA	0,00	720	720,00
GUA-200800/9294	VALLEJOS DE GARCIA, MIRTA ELIDA	0,00	720	720,00
GUA-200800/9314	ABRAHAM, BLESSING	0,00	259.21	259,21